2021

MAPAMUNDISTAS

Un **movimiento** que engendra un *movimiento*
Mugimendu batek eragiten duen **mugimendua**

PAMPLONA, HUARTE & VILLAVA
3 de septiembre - 24 de octubre 2021

IRUÑA, UHARTE & ATARRABIA
2021eko irailaren 3a – Urriaren 24a

Un movimiento que engendra un movimiento

Una vida sin emociones, una apatía prolongada, es algo que cuesta imaginar. Podría ser un estado que ocurre cuando se está fuera del mundo. Pero, ¿acaso se puede estar fuera del mundo? Existe la posibilidad de alejarse y aislarse, pero esto no significa que se deje de estar sintiendo.

El filósofo Georges Didi-Huberman define la emoción como un movimiento que nos saca de nuestro yo interior y se expande hacia fuera. Este impulso arcaico e inconsciente atraviesa cada persona y la vincula a la comunidad humana. Así, el afecto se manifiesta en un gesto que es reconocible por las demás personas. Y como gesto, alberga una acción, y como acción, posibilita una transformación, por mínima que sea.

MAPAMUNDISTAS 2021 propone examinar esta zona intermedia del "entre" en la que acontecen las emociones: entre las personas, entre las personas y el mundo. Una vez ahí, plantea tomar conciencia de su potencia, de la energía que despliegan y de su papel político. Para ello, ha invitado a un conjunto de artistas que, o bien recopilan gestos de personas anónimas, o bien realizan gestos como propuesta para sentir y pensar. Así, mediante exposiciones, performances, proyecciones o talleres, se ha elaborado un recorrido en el que observar y hacer.
Éste podría ser un posible guion:

Me llamo Fernando Renes.
Entro en el edificio y dejo atrás los sonidos de la calle. Hace fresco pero la luz es amarilla y suena. Espero.

Me llamo Florencia Rojas.
Cada día, voy al río, cuando el sol ya no quema tanto. El agua es verde, azul, parda. Me lanzo, miro el fondo y miro el cielo.

Me llamo Adriana Tamargo. Me llamo Guillermo Escribano.
Conozco los hongos. Tengo trato con ellos.

Me llamo Lee Shulman.
Me tiro desde el borde, desde el primer peldaño, desde la roca más alta. Vuelo y me hundo. Los pies arriba y la cabeza abajo.

Me llamo Itsaso Iribarren. Me llamo Germán de la Riva.
Camino por la calle. Paso delante de las cámaras de vigilancia y los semáforos en rojo. Me acoplo al paso de la muchedumbre.

Me llamo Marianne Mispelaëre.
Me uno a las demás. Alzamos las manos. En silencio.

Me llamo María Kourkoúta.
Echo a correr en la calzada. Me miran.

Me llamo Ana Esmith.
Me visto de beige. Llevo el martillo en el bolsillo por si acaso. Salgo.

Me llamo Laetitia Carton.
Giro. Todo gira. Oigo pisadas.

Me llamo Alain Gomis.
Canto cada noche. Canto el amor y la tristeza. Durante el día, en mi cabeza suenan violines.

Me llamo Víctor Forniés.
Hablo del secreto.

Me llamo Iratxe Jaio.
Me subo al tejado y escucho los susurros de la gran ciudad.

Alexandra Baurès,
comisaria

Mugimendu batek eragiten duen mugimendua

Kosta egiten da emoziorik gabeko bizitza, apatia luzatua, irudikatzea. Baliteke egoera hori mundutik at gaudenean sentitzea. Baina, egon al daiteke mundutik at? Egon, bada, urruntzeko aukera, isolatzekoa, baina horregatik ez zaio sentitzeari uzten.

Georges Didi-Huberman filosofoak honela definitzen du emozioa: gure barneko nitik jalgiarazi eta kanporantz hedatzen den mugimendua. Bulkada arkaiko eta inkontziente horrek pertsona bakoitza zeharkatzen du eta giza komunitateari lotzen zaio. Hori horrela, maitasuna agertzeko keinua ezaguterraza da gainerako pertsonentzat. Eta keinu gisara, ekintza bat biltzen du, eta ekintza gisara, eraldaketa eragin dezake, hura minimoa izanda ere.

MAPAMUNDITARRAK 2021 mugimenduak "arteko" erdiko eremu hori aztertzea proposatzen du, hor gertatzen baitira emozioak: pertsonen artekoak zein pertsonen eta munduaren artekoak. Behin horretan egonda, haien potentziaz ohartarazten gaitu, bai eta zabaltzen duten energiaz eta haien eginkizun politikoaz ere. Horretarako, artista multzo bat gonbidatu du, pertsona anonimoen keinuak biltzeko, edo keinuak egiteko, sentitu eta pentsatzeko proposamen gisara. Hartara, erakusketak, perfomanceak, proiekzioak edo lantegiak eginez, ibilbide bat osatu dute bertatik behatu eta ekiteko.
Hona gidoi posible bat:

Fernando Renes dut izena.
Eraikinean sartu eta atzean uzten ditut kaleko soinuak. Fresko dago, baina argia horia da eta soinu egiten du. Zain nago.

Florencia Rojas dut izena.
Egunero, ibaira joaten naiz, eguzkiak gutxiago erretzen duenean. Ura berdea da, urdina, arrea. Salto egin dut, hondoari begiratu diot, eta zeruari.

Adriana Tamargo dut izena. Guillermo Escribano dut izena.
Onddoak ezagutzen ditut. Kontaktua dut haiekin.

Lee Shulman dut izena.
Ertzetik egin dut jauzi, lehen mailatik, harkaitzik altuenetik. Hegan egin eta hondoratu naiz. Oinak goian eta burua behean.

Itsaso Iribarren dut izena. Germán de la Riva dut izena.
Kalean nago, paseoan. Zaintza-kameren eta semaforo gorrien aurrean igaro naiz. Bat egin dut jendetzaren urratsekin.

Marianne Mispelaëre dut izena.
Bat egin dut besteekin. Eskuak altxatu ditugu. Ixilik.

María Kourkoúta dut izena.
Galtzadan, korrikan abiatu naiz. Begira ditut besteak.

Ana Esmith dut izena.
Beixez jantzi naiz. Sakelan, mailua daramat, badaezpada. Irten naiz.

Laetitia Carton dut izena.
Biraka nabil. Dena biraka. Oinkadak entzun ditut.

Alain Gomis dut izena.
Gauero kantatzen dut. Maitasuna eta tristura kantatzen ditut. Egunean zehar, biolin-soinuak aditzen ditut nire buruan.

Víctor Forniés dut izena.
Sekretuaz ari naiz.

Iratxe Jaio dut izena.
Teilatura igo eta hiritzarraren xuxurlak aditzen ditut.

Alexandra Baurès,
Komisarioa

FERNANDO RENES

Vestibulum

La palabra *vestíbulo* tiene su origen en el término latín *vestibulum* que designaba la entrada a la casa romana. Hoy en día, la estancia que sirve de acceso a un edificio conserva esta misma función y delimita el paso de la calle al interior. Así, el vestíbulo se erige como un espacio de transición y también es el lugar del saludo.

En el Sario, Fernando Renes elige devolver al espacio expositivo su origen mediante una instalación in situ. Para su propósito, apela a la tradición hispanomusulmana del alicatado y emplea 2800 azulejos para revestir las paredes. El artista ordena las piezas de cerámica por colores y formas geométricas, de tal manera que va desplegando un dibujo a lo largo del ancho pasillo. Y como la técnica requiere cálculo, escoge la secuencia *Fibonacci* para colocar las piezas. En este modelo matemático, tan presente en la naturaleza, cada número es la suma de los anteriores (1, 2, 3, 5, 8, 13…). Con ello, Fernando Renes busca hacer crecer progresivamente el dibujo en el espacio.

Fernando Renes
(Covarrubias, Burgos, 1970)
vive en Bilbao.

EXPOSICIÓN | UPNA Pamplona, El Sario

Vestíbulo hitza (atondoa) gaztelaniaz *vestibulum* latineko terminoan dauka jatorria, eta etxe erromatarraren sarrera izendatzen du. Gaur egun, eraikin batera sartzeko guneak zeregin horri berari eutsi dio eta kaletik barnera igarotzeko pausua zedarritzen du. Hartara, atondoa trantsizio gunea da, eta agur egitekoa.

Sarion, Fernando Renesek bere jatorrizko zeregina itzultzen dio erakusketa guneari, bertan jarritako instalazio baten bidez. Xede horretarako, tradizio hispano-islamiarrari heltzen dio, eta 2.800 azuleju erabiltzen ditu hormak janzteko. Artistak koloreen eta forma geometrikoen arabera antolatu ditu zeramika-piezak, korridorean barna marrazki bat hedatzen delarik. Eta teknika honek kalkulua egitea eskatzen duenez, *Fibonacci* segida hautatu du piezak kokatzeko. Naturan hain zabaldurik dagoen eredu matematiko honetan, zenbaki bakoitza aurrekoen baturaren emaitza da (1, 2, 3, 5, 8, 13…). Haren bidez, Fernando Renesek marrazkia espazioan progresiboki haztea eragin nahi du.

Fernando Renes
(Covarrubias, Burgos, 1970)
Bilbon bizi da.

ERAKUSKETA | NUP Iruña, Sario



META-COLECTIVO

Compost-ables

Adriana Tamargo y Guillermo Escribano plantean la cuestión de los cuidados desde una postura no antropocéntrica. Desplazan el debate más allá del ámbito social o más bien redefinen el ecosistema en el que se deben ejercer los cuidados. En el proyecto *Compost-ables*, buscan la colaboración de una red de agentes en el entorno próximo del Centro Huarte. Con las cafeterías de la localidad acordarán la recuperación de los posos de café como materia prima para sus esculturas. Les interesa este desecho porque se trata de un sustrato apreciado por los hongos y las plantas, otras especies con las que quieren interactuar en la propuesta. Igualmente invitarán a la población cercana a participar en el proceso, de tal manera que se dé una coautoría entre humanos y no humanos. Después de su paso por el laboratorio de creación, las esculturas se depositarán en el entorno natural próximo al centro de arte, donde seguirán su lenta transformación bajo el efecto de la lluvia y del sol.

Adriana Tamargo (San Sebastián, 1993) y Guillermo Escribano (Burgos, 1993) forman parte de META-colectivo .

www.meta-colectivo.com

EXPOSICIÓN & TALLER
CENTRO HUARTE, Habitación

Adriana Tamargo eta Guillermo Escribanok ikuspegi ez-antropozentriko batetik heldu diote zainketen gaiari. Gizarte esparrutik haratago eraman dute eztabaida, edo, hobeki esanda, beste modu batera zedarritu dute zaintza-lanen ekosistema. *Compost-ables* proiektuan, agente-sare baten laguntza bilatzen dute Uharte zentroaren inguru hurbilean. Bertako kafetegiekin batera arituta, kafe-hondarrak bilduko dituzte eskulturak egiteko lehengaitzat erabiltzeko. Hondakin horretan interesa dute onddoen eta landareen gustuko substratua delako, eta proposamen honetan espezie horiekin ere elkarreragin nahi dutelako. Halaber, ondoko jendea gonbidatuko dute prozesuan parte hartzera, gizakien eta ez-gizakien arteko egilekidetza gerta dadin. Sormen-laborategitik igaro eta gero, eskulturak arte-zentroaren ondoko ingurune naturalean utziko dira, bertan poliki eraldatu daitezen euriaren eta eguzkiaren pean.

Adriana Tamargo (San Sebastián, 1993) eta Guillermo Escribano (Burgos, 1993) META-colectivoren partaideak dira.

www.meta-colectivo.com

ERAKUSKETA & TAILERRA
UHARTE ZENTROA, Logela

FLORENCIA ROJAS

En los mismos ríos
Ibai berberetan

Es la tercera vez que Florencia Rojas responde a una invitación artística que tiene lugar a orillas de un río. La primera fue en el pueblo de Genalguacil en 2018. Ahí, durante dos semanas, cada día tomó una fotografía y se bañó a la misma hora y en el mismo punto del río Genal. Así, llevó a la práctica la conocida frase de Heráclito: *En los mismos ríos entramos y no entramos, [pues] somos y no somos [los mismos]*. La segunda vez fue en 2020, en la isla de la Cartuja de Sevilla, donde residieron los monjes de la orden de los Cartujos desde 1401 hasta 1836. El Guadalquivir les servía de muralla pero a veces se volvía en su contra cuando salía de su cauce. En esta ocasión, Florencia Rojas retrató la flora de las tierras baldas del Desierto de Tabernas de Almería, como símbolo de la austeridad de la vida monástica. Finalmente, en Batán reúne ambos trabajos conjuntamente con imágenes sacadas a la vegetación del Ulzama y del Arga, buscando establecer una conversación entre ríos.

Florencia Rojas
(Córdoba, Argentina, 1984)
vive en Madrid.

www.florenciarojas.com

EXPOSICIÓN | BATÁN, Villava

Hauxe hirugarren aldia da Florencia Rojasek ibai-ertzeetan egitekoa den gonbidapen artistiko bati erantzuten diona. Lehena Genalguacil herrian izan zen, 2018an. Bertan, bi astetan zehar, argazki bat egin zuen eta bainu bat hartu zuen ordu berean Genal ibaiaren toki berean. Horrela, Heraklitoren esaldi ospetsua eraman zuen praktikara: I*bai berberetan sartzen gara eta ez gara sartzen, berberak garelako eta ez garelako*. Bigarrena, 2020an izan zen, Sevillako Cartuja uhartean, 1401etik 1836ra kartusiar ordenako monjeen bizitokia izan zen lekuan. Guadalquivir ibaiak harresiarena egiten zuen, baina batzuetan haien kontra jokatzen zuen ibilgutik irteten zenean. Kasu honetan, Florencia Rojasek Tabernaseko (Almeria) basamortuaren lugorrien landareak erretratatu zituen, bizitza monastikoaren laztasun ikurtzat. Azkenik, Pilategian bildu ditu bi lan horiek eta Ultzama zein Arga ibaietako landareei egindako argazkiak, ibaien artean halako hartu-emana sortu nahian.

Florencia Rojas
(Córdoba, Argentina, 1984)
Madrilen bizi dira.

www.florenciarojas.com

ERAKUSKETA | PILATEGIA, Atarrabia

THE ANONYMOUS PROJECT

The Deep End

Desde que empezó a andar en 2017, The Anonymous Project ha ido reuniendo una colección de 15.000 diapositivas en color Kodakchrome, todas procedentes de álbumes familiares. Para Lee Shulman, su fundador, cada imagen de la colección corresponde a un momento único y forma parte del diario de la gran familia humana. En el Horno, presenta una selección de fotografías que comparten un mismo gesto: *tirarse al agua*. Este impulso del cuerpo de no tocar el suelo, casi de volar y de abandonarse a la fuerza de la gravedad, nos es familiar desde la tierna infancia. También lo es la sensación de sumergirse, de hundir la cabeza debajo del agua, ser casi pez o tal vez, volver a ser embrión. En este movimiento, hay un salir del cuerpo y un abrazar los elementos (el agua, la luz, el aire, el día). Se toma un pequeño riesgo, se libera una energía vital que resulta necesaria, más aún en tiempos de incertidumbre.

Lee Shulman
(Londres, 1973)
vive en París.

www.anonymous-project.com/en/collection/

EXPOSICIÓN | CIUDADELA,
Horno, Pamplona

2017. urtean abiatu zenetik, The Anonymous Project bilduma bat osatzen joan da Kodakchrome koloretako 15.000 diapositibarekin, denak familia-albumetatik hartuak. Lee Shulman proiektuaren fundatzailearentzat bildumaren irudi bakoitza une berezi bati dagokio eta giza familia handiaren egunerokoaren parte da. Labean, argazki sorta hautatu bat aurkezten digu, guztietan keinu bera agertuta: *Uretara salto egitea*. Lurra ez ukitzeko gorputzaren abiada hori, ia hegan egitekoa eta grabitatearen indarrari men egitekoa, geure-geurea da haurtzarotik beretik. Halaxe da, baita ere, murgiltzeko sentsazioa, burua urpean hondoratzekoa, ia arraina izatea edo, agian, berriz enbrioi izatea. Mugimendu horretan gorputzetik jalgitze bat dago, elementuekiko besarkada bat (ura, argia, airea eta eguna). Arrisku txikia hartuta, beharrezkoa zaigun bizi-energia askatzen da, are beharrezkoagoa ziurgabetasun-garaiotan.

Lee Shulman
(Londres, 1973)
Parisen bizi da.

www.anonymous-project.com/en/collection/

ERAKUSKETA | ZIUDADELA,
Labea, Iruña,

ITSASO IRIBARREN & GERMÁN DE LA RIVA

Ciudades, caminos, cuerpos y fragmentos

Hiriak, bideak, gorputzak eta pusketak

Caminar por la ciudad, moverse a través de sus plazas, calles, túneles o parques, supone dejarse atravesar por la arquitectura urbana y sus consignas. La ciudad contemporánea conforma un ecosistema regido por barreras, normas de conducta y estímulos capitalistas. Para Itsaso Iribarren & Germán de la Riva, el cuerpo que se desenvuelve en este contexto es un cuerpo *codificado*, es decir un cuerpo sometido a instrucciones, leyes o costumbres. Lo diferencian del cuerpo *fragmentado*, que viene a ser la respuesta a estos requerimientos. Así, en el conjunto de esculturas que presentan en el Pabellón de Mixtos, hacen mención a este cuerpo incompleto usando prendas de ropa que dan forma a su presencia parcial y anónima. Conviven con otros objetos que denominan *esculturas-acción* que son estructuras que pueden servir potencialmente de cobijo o de prótesis al cuerpo.

Itsaso Iribarren (Pamplona, 1981) & Germán de la Riva (Cumaná, Venezuela, 1977) viven en Cuenca.

www.iribarrendelariva.com

EXPOSICIÓN | CIUDADELA, Pabellón de Mixtos 1ª planta, Pamplona

Hirian barna ibiltzeak, bertako plaza, kale, tunel edo parkeetan mugitzeak, berekin dakar hiri-arkitekturak eta haren kontsignek zeharka gaitzaten uztea. Hiri garaikideak ekosistema bat eratzen du, hesien, jokamolde-arauen eta estimulu kapitalisten agindupean. Itsaso Iribarren & Germán de la Rivarentzat, halako testuinguru batean mugitzen den gorputza gorputz kodifikatua da, hau da, jarraibide, lege edo azturen menpekoa da. Gorputz zatikatutik bereizten dute, zeina eskakizun horien aurreko erantzuna baita. Hartara, Mistoen eraikinean aurkezten duten eskultura multzoan, gorputz osatu gabe horri egiten diote aipu bere presentzia partzial eta anonimoa itxuratzen duten jantziak erabilita. Ekintza-eskulturak izeneko beste objektu batzuekin batera bizi dira: egitura batzuk dira, gorputzaren babes edo protesi gisara baliagarri izan daitezkeenak.

Itsaso Iribarren (Pamplona, 1981) & Germán de la Riva (Cumaná, Venezuela, 1977) Cuencan bizi dira

www.iribarrendelariva.com

ERAKUSKETA | ZIUDADELA, Mistoen Eraikina 1. sol. Iruña,

MARIANNE MISPELAËRE

Codo con codo

Ukondoz ukondo

Si se considera el conjunto de gestos que realizamos a diario como una coreografía, a Marianne Mispelaëre le interesa la parte compartida de estas señas y su resonancia política. De las marchas que, desde la primavera 2010, tomaron las calles en varias partes del mundo, la artista archiva imágenes de gestos que circulan en las redes. Son posturas realizadas con las manos o los brazos por el conjunto de manifestantes que transmiten un mensaje de protesta. Reúne estas imágenes junto con textos que contextualizan cada acción y su significado en un repertorio visual de las revueltas que ha titulado *Silent Slogan*.

Por otra parte, Marianne Mispelaëre, se detiene en los gestos propios de su disciplina -el dibujo- para hacer visible la energía desplegada por el movimiento del pincel. Asimismo presta atención a la mínima expresión del trazo que es la línea, como en el vídeo *Rencontre Séparation (Encuentro Desencuentro)*, en el que atravesar la página en blanco con el pincel es suficiente para provocar una reacción.

Marianne Mispelaëre (Isère, Francia, 1988) vive en Aubervilliers.

www.mariannemispelaere.com

EXPOSICIÓN | CIUDADELA, Pabellón de Mixtos 1ª, Pamplona

Egunero egiten dugun keinu multzoa koreografiatzat hartzen badugu, Marianne Mispelaëreri zeinu horien alde partekatua eta oihartzun politikoa interesatzen zaizkio. 2010eko udaberriaz geroztik munduko zenbait aldetan kaleak hartu zituzten martxak gertatu zirenetik, artista sareetan dabiltzan keinuen irudiak artxibatzen aritu da. Manifestarien multzoak eskuekin edo besoekin osatutako jarrerak dira, eta protesta-mezu bat helarazten dute. Irudi horien bilduma egin du ekintza bakoitzaren eta haren esanahiaren testuingurua zedarritzen duten testuekin batera, *Silent Slogan* izenburua jarri dion matxinaden ikusizko errepertorio batean.

Bestalde, Marianne Mispelaëre bere diziplinaren keinu propioetan pausatzen da, hau da, marrazketan, pintzelaren mugimenduak hedatutako energia ikusgai egiteko. Halaber, trazuaren adierazpen minimoari –lerroari– erreparatzen dio, *Rencontre Séparation (Topaketa Destopaketa)* bideoan kasu, non zurizko orria pintzelarekin zeharkatzea nahikoa baita erreakzio bat eragiteko.

Marianne Mispelaëre (Isère, Francia, 1988) Aubervilliersen bizi da.

www.mariannemispelaere.com

ERAKUSKETA | ZIUDADELA, Mistoen Eraikina, 1. sol Iruña.

MARÍA KOURKOÚTA

Regreso a la calle Eolo (Seis pinturas populares)

Itzulera Eolo kalera (sei pintura herrikoi)

La cineasta griega afincada en Francia, María Kourkoúta, rinde un tributo a la cultura griega de los años 50 y 60 del pasado siglo, creando un cortometraje hecho con fragmentos de películas y de poemas. Escoge extractos de cintas populares para el público griego pero desconocidas en el resto de Europa. Sin embargo, el regreso que realiza sobre estas imágenes resulta familiar por los movimientos de los personajes que transcurren a un ritmo ralentizado. María Kourkoúta escoge la lentitud para detenerse en la expresión de los rostros y observar los cuerpos. Son gestos que parecen suspendidos en el tiempo, gestos tan comunes como cerrar los ojos y balancear la cabeza, echar a correr, aplaudir o gritar. La música de Manos Hadjidakis va marcando el tempo de la cinta y los cambios de secuencia. A la vez, las voces en off que recitan versos se solapan a las imágenes, conformando un poema tanto sonoro como visual.

María Kourkoúta
(Grecia, 1982)
vive entre Francia y Grecia.

mariakourkouta.net

EXPOSICIÓN | CIUDADELA,
Pabellón de Mixtos 1ª, Pamplona

Frantzian bizi den María Kourkoúta zinemagile greziarrak tributu egin dio pasa den mendeko 50 eta 60ko urteetako kultura greziarrari, film eta poemen puskekin osatutako film laburra sortuz. Greziarren artean herrikoiak baino Europako gainerakoan ezezagunak diren zinten pasarteak hautatu ditu. Alabaina, irudi horietara egiten duen itzulera ezaguna egiten da pertsonaiek erritmo motelean egiten dituzten mugimenduengatik. María Kourkoútak moteltasuna hautatu du, aurpegien adierazpideak geldo aztertzeko eta gorputzak behatzeko. Denboran etendako keinuak dirudite, ohikoak zaizkigun keinuak, hala nola begiak ixtea eta buruaz zabu egitea, korrika abiatzea, txalotzea edo oihukatzea. Manos Hadjidakisen musikak zintaren tempoa eta sekuentzia-aldaketak zedarritzen ditu. Aldi berean, bertsoak errezitatzen dituzten off-eko ahotsak irudiei gainjartzen zaizkie, poema soinudun bezain ikusizkoa sortuz.

María Kourkoúta
(Grecia, 1982)
Frantzian eta Grezian bizi da

mariakourkouta.net

ERAKUSKETA | ZIUDADELA,
Mistoen Eraikina, 1. sol. Iruña

FLORENCIA ROJAS

Amigos invisibles del río

Taller para niños y niñas a partir de 7 años

La técnica artística del *frottage* (del francés "frotter", "frotar") consiste en colocar una hoja de papel sobre un objeto y frotar con un lápiz para conseguir una impresión de la forma y textura de ese objeto. En este taller, se explorará el entorno natural del Batán y se crearán imágenes mediante esta técnica.

Diseccionar el río Ulzama

Taller de fotografía

Se caminará siguiendo el curso del río Ulzama desde el puente de la Trinidad hasta el Molino de San Andrés. Se fotografiarán los elementos del paisaje por tipografía -históricos, vegetales, arquitectónicos- y se clasificarán para profundizar en el entorno.

Material necesario: cámara de fotos o teléfono móvil.

Sábado 11 de septiembre, de 11.00 a 13.00 (niños/as) y de 17.00 a 20.00 (adultos/as). Actividad gratuita con inscripción previa en www.mcp.es/actividades

TALLER | BATÁN, Villava

FLORENCIA ROJAS

Ibaiaren lagun ikusezinak

7 urtetik gorako haurrentzako lantegia

Honetan datza *frottage* (frantsesetik "frotter", "igurtzi") teknika artistikoa: paper-orri bat objektu baten gainean jarri eta arkatz batez igurtzi objektuaren forma eta testuraren inpresoa lortzeko. Lantegian, Pilategiaren ingurune naturala miatu eta irudiak sortuko dituzte aipatu teknika erabilita.

Ultzama ibaia disekzionatzea

Argazkilaritza-lantegia

Oinez abiatuko gara Ultzama ibaiaren ibilguari jarraituz, Trinitate zubitik San Andrés errotaraino. Paisaia-elementuei tipografia moten arabera argazkiak egin eta sailkatuko dira, ingurunean sakontzeko: elementu historikoak, landaretzakoak, arkitektonikoak.

Behar den materiala: argazki-kamera edo telefono mugikorra.

Larunbatean, irailak 11, 11:00etatik 13:00etara (haurrak) eta 17:00etatik 20:00etara (helduak). Doako jarduera, aurrez www.mcp.es/eu/jarduerak webgunean izena emanda.

LANTEGIA | PILATEGIA, Atarrabia

MARIANNE MISPELAËRE

Mesurer les actes (Medir los actos)

El **viernes 17 de septiembre,** Marianne Mispelaëre se pondrá manos a la obra en la 1ª planta del Pabellón de Mixtos. Llevará a cabo una acción de dibujo en una de las paredes de la sala con pincel y tinta china. La performance durará hasta la última gota de tinta o cuando la artista se quede sin fuerzas.

Entrada libre.

ITSASO IRIBARREN & GERMÁN DE LA RIVA

Silicio. El ocaso de la ciudad

El **sábado 18 de septiembre**, Itsaso Iribarren & Germán de la Riva intervendrán en la 1ª planta del Pabellón de Mixtos mediante una performance de danza. Sus cuerpos transitarán por el espacio y entrarán en dialogo con las esculturas.

Pases a las 12.00, 12.30 y 13.00 por la mañana y 19.00, 19.30 y 20.00 por la tarde. Entrada libre con inscripción previa en la sala media hora antes del pase.

PERFORMANCES | CIUDADELA, Pabellón de Mixtos 1ª, Pamplona

MARIANNE MISPELAËRE

Mesurer les actes (ekintzak neurtzea)

Irailaren 17an, ostiralarekin, Marianne Mispelaërek lanari ekinen dio Mistoen eraikineko 1. solairuan. Marrazketa-ekintza bat eginen du aretoko hormetako batean pintzel eta tinta txinatarrez. Perfomanceak azken tinta-tanta agortu arte irraunen du edo artista indarrik gabe geratu arte.

Sarrera librea.

ITSASO IRIBARREN & GERMÁN DE LA RIVA

Silizioa. Hiriaren gainbehera

Irailaren 18an, Itsaso Iribarren & Germán de la Rivak Mistoen Eraikineko 1. solairuan esku hartuko dute, dantza-perfomance baten bidez. Haien gorputzak espazioan barna higitu eta hartu-emanetan hasiko dira eskulturekin.

Paseen ordutegiak: 12:00, 12:30 eta 13:00etan, goizez, eta 19:00, 19:30 eta 20:00etan, arratsaldez. Sarrera librea da, aretoan aurrez izena emanda pasea baino ordu erdi lehenago.

PERFORMANCEAK | ZIUDADELA, Mistoen Eraikina, 1. sol. Iruña

ANA ESMITH

Miss Beige

El **sábado 25 de septiembre a las 19.00**, Ana Esmith dará una conferencia performativa en torno a su personaje Miss Beige en el Museo de Navarra. A Miss Beige se le reconoce por el tono beige de su vestimenta, su peinado algo anticuado y el martillo que lleva siempre en el bolso. Sus andanzas se pueden seguir en las redes sociales, aunque ella realiza sus acciones en la calle. Sus apariciones siempre son reivindicativas, no les falta humor. Lucha contra los estereotipos y se define a sí misma como "un personaje nacido para no gustar".

Entrada libre previa retirada de invitación desde las 17.00 en la taquilla del Museo. Dos entradas por persona hasta completar el aforo.

PERFORMANCE | MUSEO DE NAVARRA, Pamplona

ANA ESMITH

Miss Beige

Irailaren 25ean, larunbatarekin, Ana Esmithek perfomance-hitzaldi bat emanen du, 19:00etan, Miss Beige pertsonaiaren inguruan, Nafarroako Museoan. Miss Beige jantzien kolore beixarengatik, haren orrazkera zaharkitu samarrarengatik eta poltsan beti eramaten duen mailuagatik ezagutzen zaio. Haren ibilerei sare sozialetan jarraitzen ahal zaizkie, ekintzak kalean egiten baditu ere. Haren agerraldiek aldarrikatze-kutsua dute beti, ez zaie umorea falta. Estereotipoen kontra egiten du eta "ez gustatzeko jaiotako pertsonaiatzat" definitzen du bere burua.

Sarrera librea, aldez aurretik gonbidapena hartuta, 17:00etatik aurrera Museoko txarteldegian. Bi sarrera pertsonako, lekuak bete arte.

PERFORMANCEA | NAFARROAKO MUSEOA, Iruña

Jueves 7 de octubre,
19.30.

Félicité

Alain Gomis
2016, 2h. 3 min.
VO subtitulada en castellano.

La película retrata a Félicité, una madre soltera que se gana la vida cantando en un bar de Kinshasa (Congo). Una circunstancia viene a alterar su vida: su hijo tiene un accidente de moto y debe encontrar el dinero para pagar su operación. Llama a todas las puertas y recorre de par en par la gran urbe que aparece como un personaje omnipresente. Otro elemento esencial de la cinta es la música: las canciones de Kasaï Allstars cantadas por Felicité y las obras del compositor Arvo Pärt interpretadas por la Orquestra Sinfónica de Kinshasa son interludios en el relato. En el camino de Félicité aparece Tabu, un cliente habitual del bar que le ayuda. Entre ella, él y su hijo, vuelve a florecer la vida.

Entrada libre con inscripción previa.
CINE | CIVIVOX Iturrama, Pamplona

Urriak 7 osteguna
19.30.

Félicité

Alain Gomis
2016, 2h. 3 min.
JB, gaztelaniazko azpitituluekin.

Filmak Felicitéren erretratua egiten digu, bizibidea Kinshasako (Kongo) taberna batean kantatzetik ateratzen duen ama ezkongabe batena. Gorabehera batek aldatuko dio bizitza: semeak moto-istripua izan eta amak ebakuntza ordaintzeko dirua topatu beharko du. Ate guztietara joka arituko da, pertsonaia nonahiko gisara agertzen den hiri erraldoia alderik alde zeharkatuz. Musika da filmaren beste funtsezko elementu bat: Kasaï Allstarsen abestiak, Feliciték kantatuak, eta Arvo Pärt konpositorearen lanak, Kinshasako Orkestra Sinfonikoak interpretatuak, interludioak dira narrazioan. Felicitéri Tabu agertuko zaio bidean, tabernako ohiko bezero bat, eta lagunduko dio. Eta bizitza berriz ere loratuko da Felicité, Tabu eta semearen artean.

Sarrera librea, aurrez izena emanda.
ZINEMA | Iturramako CIVIVOXA, Iruña

Jueves 14 de octubre,
19.30.

Un Padre

Victor Forniés
2017. España/Francia
1h. 2 min.

Abuelo, padre e hijo. Y muchas preguntas sin responder.
Este documental autobiográfico es un retrato del padre de Víctor Forniés, el director del filme, que busca entender el silencio que ha marcado su relación.
A partir de la decisión de buscar a un ser querido, a su abuelo, asesinado por la dictadura, crea un relato íntimo y lírico en el que poco a poco desvela lo silenciado, como un gesto liberador y necesario, más allá de la historia familiar.
A la vez, en este camino emprendido hacia la verdad, examina con delicadeza la complejidad emocional de las relaciones padre-hijo.

Entrada libre con inscripción previa.
Conversación con Victor Forniés después de la proyección.
CINE | CIVIVOX Iturrama, Pamplona

Urriak 14 osteguna,
19.30.

Aita bat

Victor Forniés
2017. Espainia/Frantzia
1h. 2 min.

Aitona, aita eta semea. Eta galdera asko erantzun gabe.
Dokumental autobiografiko hau Víctor Forniés filmaren zuzendariaren aitaren erretratua da, haien arteko harremana zedarritu duen isiltasuna ulertu nahi duena.
Pertsona maitatu bat, diktadura garaian eraildako aitona, bilatzeko erabakitik abiatuta, narrazio intimoa eta lirikoa sortuko du, isildutakoa gutxinaka argitzen duena, keinu askatzaile eta beharrezko gisara, familiaren historiatik beretik haratago. Aldi berean, egiarako bide honetan, samurtasunez heltzen dio aita-semearen harremanen konplexutasun emozionala aztertzeari.

Sarrera librea, aurrez izena emanda.
Solasaldia Victor Forniésekin, proiekzioa eta gero
ZINEMA | Iturramako CIVIVOXA, Iruña

Jueves 21 de octubre, *19.30.*

SESIÓN DOBLE

Onder de Vleugel (Bajo el ala)

Iratxe Jaio

2020, Países Bajos, 11 min.
VO subtitulada en castellano.

Este cortometraje es un proyecto que la artista Iratxe Jaio y su hijo de 11 años llevaron a cabo durante el confinamiento de 2020. Como en la película de Wim Wenders, *El cielo sobre Berlín*, un misterioso niño sube a los tejados de la ciudad portuaria de Rotterdam. Desde allí escucha y anota en su cuaderno los pensamientos de los/las ciudadanos/as. Para dar voz a estas palabras, la directora y su hijo hicieron un llamamiento en las redes. Recibieron más de 200 susurros en más de 20 idiomas, como si el mundo quisiera transmitirles que no se encontraban solos en su aislamiento.

Le grand bal (El gran baile)

Laetitia Carton

2018, Francia, 1h. 29 min.
VO subtitulada en castellano.

Entrada libre con inscripción previa.

Este documental autobiográfico relata los siete días y las ocho noches que dura el festival de danzas tradicionales que se celebra cada verano en Gennetines (Francia). La cámara se sumerge en esta experiencia colectiva a flor de piel y al límite, en la que los cuerpos vibran al son de la música en vivo durante las clases, los bailes y las fiestas que marcan el paso de las horas. También se introduce en las conversaciones entre los participantes con el fin de abordar desde un punto de vista sociológico esta manera de estar juntos/as, en una misma respiración y un mismo movimiento.

Entrada libre con inscripción previa.
CINE | CIVIVOX Iturrama, Pamplona

Urriak 21 osteguna, *19.30.*

BI EMANALDI

Onder de Vleugel (Hegalaren pean)

Iratxe Jaio

2020, Herbehereak, 11 min.
JB, gaztelaniazko azpitituluekin.

Film labur hau Iratxe Jaiok eta 11 urteko haren semeak egin zuten 2020ko konfinamenduaren garaian. *Zerua Berlin gainean* Wim Wendersen filmean bezala, haur misteriotsu bat Rotterdam portu-hiriko teilatuetara igoko da. Bertatik herritarren pentsamenduak aditu eta apuntatuko ditu koaderno batean. Hitzoi ahotsa emateko xedez, zuzendariak eta haren semeak dei bat egin zuten sareetan. 200 xuxurlatik gora jaso zuten 20 hizkuntza baino gehiagotan, munduak helarazi nahiko balie bezala ez zeudela bakarrik haien isolamenduan..

Le grand bal (Dantza handia)

Laetitia Carton

2018, Frantzia, 1h. 29 min.
JB, gaztelaniazko azpitituluekin.

Sarrera librea, aurrez izena emanda.

Dokumental autobiografiko honek udaro Gennetinesen (Frantzia) egiten den dantza tradizionalen jaialdiaren zazpi egunak eta zortzi gauak kontatzen ditu. Kamera murgildu egiten da esperientzia kolektibo ageriko eta mugako honetan, non gorputzek dar-dar egiten baitute zuzeneko musikaren soinupean orduen joana markatzen duten eskoletan, dantzetan eta festetan. Parte-hartzaileen arteko hizketaldietan ere sartzen da, ikuspegi soziologiko batetik heltzeko arnasketa eta mugimendu berean elkarrekin murgilduta egoteko modu honi.

Sarrera librea, aurrez izena emanda.
ZINEMA | Iturramako CIVIVOXA, Iruña

Restaurante Japonés

TOKIO

C/ Joaquín Maya, 15
31006 PAMPLONA
Horario: 12:30 a 16:00 y de 20:30 a 24:00

Comida para llevar
948 24 72 72 · 652 08 77 11
Pedido mínimo 20€

Para dejar una buena impresión...

grupoZiur
Navarra

www.ziur.es

Pol. Ind. C/G nº11
31192 Mutilva Baja - Navarra
Tel +34 948 239 336
Fax +34 948 238 216
info@ziur.es

Florencia Rojas, *En los mismos ríos*, 2021 © Florencia Rojas

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN
11.09 / 24.10

FLORENCIA ROJAS
En los mismos ríos

ATARRABIAKO PILATEGIA · Larunbat, igande eta jaiegun guztietan
BATÁN DE VILLAVA · Sábados, domingos y festivos
11:00-14:00 / 17:00-20:00

2021 LINDISTAS MAPAM

Mancomunidad Comarca de Pamplona
Iruñerriko Mankomunitatea

ATARRABIAKO PILATEGIA
Kale Nagusia, 64, Atarrabia

BATÁN DE VILLAVA
Calle Mayor, 64, Villava

INFORMACIÓN

El calendario de encuentros se publicará en **www.mapamundistas.com** y en el Facebook de Mapamundistas unos días antes de su celebración. **Síguenos**.

BATÁN
Florencia Rojas
Exposición del 11 de septiembre al 24 de octubre
Talleres el 11 de septiembre

Sábados, domingos y festivos de 11:00 a 14:00 y de 17:00 a 20:00
C/ Mayor 64, junto a la Trinidad Arre, Villava.

CENTRO HUARTE
META-COLECTIVO
Exposición del 3 de septiembre al 24 de octubre

Viernes de 17.00 a 20.00; sábados y domingos de 11.00 a 14.30
C/ Calvario, 2. Huarte.

CIUDADELA
The Anonymous Project, Itsaso Iribarren & Germán de la Riva; Marianne Mispelaëre; María Kourkoúta
Exposición del 17 de septiembre al 24 de octubre
Performances viernes 17 y sábado 18 de septiembre

De martes a sábados de 11.30 a 13.30 y de 18:00 a 20:30. Domingo y festivos de 11:30 a 13:30
Avda. del Ejército, s/n. Pamplona.

CIVIVOX ITURRAMA
CINE los jueves 7,14 y 21 de octubre.
C/ Esquiroz, 24. Pamplona

MUSEO DE NAVARRA
Anna Esmith
Performance
Sábado 25 de septiembre.
C/ Santo Domingo, 47. Pamplona.

UPNA (Sario)
Fernando Renes
Exposición del 3 de septiembre al 22 de octubre

De lunes a viernes de 8.30 a 21.00.
C/ Arrosadia s/n. Pamplona.

INFORMAZIOA

Topaketen egutegia **www.mapamundistas.com** eta Mapamundistas Facebooken, webguneetan argitaratuko da topaketak noiz egin eta egun batzuk lehenago. **Jarraiguzu**.

PILATEGIA
Florencia Rojas
Erakusketa: Irailak 11 – urriak 24.
Lantegiak: irailak 11.

Larunbat, igande eta jaiegunetan: 11:00 – 14:00 eta 17:00 – 20:00
Kale Nagusia, 64. Arreko Hirutasun Santuaren ondoan. Atarrabia

UHARTE ZENTROA
META-COLECTIVO
Erakusketa Irailak 3 – urriak 24.

Ostiraletan: 17:00 – 20:00. Larunbat eta igandeetan: 11:00 – 14:30.
Kalbario kalea, 2 Uharte

ZIUDADELA
The Anonymous Project, Itsaso Iribarren & Germán de la Riva; Marianne Mispelaëre; María Kourkoúta
Erakusketa Irailak 17 – urriak 24.
Performanceak irailak 17 (ostirala) eta 18 (larunbata).

Asteartetik larunbatera: 11:30 – 13:30 eta 18:00 – 20:30. Igande eta jaiegunetan: 11:30 – 13:30.
Armada etorbidea, z.g. Iruña

ITURRAMAKO CIVIVOXA
ZINEMA urriak 7, 14 eta 21 (ostegunak).
Eskirotz kalea, 24. Iruña

NAFARROAKO MUSEOA
Anna Esmith
Performancea
Irailak 25, larunbata.
San Domingo k., 47. Iruña

UPNA (Sario)
Fernando Renes
Erakusketa: Irailak 3 – urriak 22.

Astelehenetik ostiralera: 08:30 – 21:00.
Arrosadia kalea, z.g. Iruña.



La asociación cultural la caracola agradece a las artistas, a las entidades y a todas las personas que han hecho posible esta 15ª edición de MAPAMUNDISTAS.

La Caracola kultur elkarteak esker ona helarazten die MAPAMUNDITARRAKen 15. edizioa ahalbidetu duten artista, erakunde eta gainontzeko guztiei.

Organizador/ Antolatzailea:

la caracola
ASOCIACIÓN CULTURAL

Patrocinadores oficiales/ Babesle ofizialak:

Subvenciona/ Diruz lagundua:

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030
Ayuntamiento de Pamplona Iruñeko Udala

Sedes exposiciones & actividades / Erakusketen egoitzak & jarduerak:

Huarte
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO

NAFARROAKO MUSEOA DE NAVARRA

Mancomunidad Comarca de Pamplona
Iruñerriko Mankomunitatea

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Patrocinadores / Babesleak:

Restaurante Japonés TOKIO

MIQUELEIZ
ANTIGÜEDADES - LIBROS

grupoZiur
Navarra

Colaboradores / Laguntzaileak:

Co-funded by the Creative Europe Programme of the European Union
whō¿carës

Genealguacil Puebla Museo

TVMAN

MAPAMUNDISTAS es un proyecto artístico de interés social según la Ley Foral de Mecenazgo Cultural. Puedes apoyarlo y recibir importantes ventajas fiscales.
MAPAMUNDITARRAK gizarte-intereseko arte-proiektua da Kultur Mezenasgoaren Foru Legearekin bat. Babesa ematen ahal diozu, eta zerga-abantaila nabarmenak

mecna

www.culturanavarra.es/es/quiero-ser-mecenas

Textos / Testuak
Alexandra Baurès

Imágenes
Portada y pág. 12: The Anonymous Project, Lee Shulman. The Deep End.
Pág. 6: Fernando Renes. Salto del caballo. 2018. 64 azulejos vidriados de 15x15 cm cada uno.
Pág. 8: Meta-colectivo. Compost-ables.
Pág. 10 y 20: Florencia Rojas. Arundo donax-Les mauvaises terres à traverser; Encuentro del Ulzama con el Arga.
Pág. 14 y 22-23: Itsaso Iribarren & Germán de la Riva. Ciudades, caminos, cuerpos y fragmentos.
Pág.16: Marianne Mispelaëre. Silent Slogan.
Pág. 18: María Kourkoúta. Regreso a la Calle Eolo.
Pág. 24: Ana Esmith. La Miss Beige de Michelangelo. Galería Ponce+Robles, Madrid.
Pág. 26 y 27: Alain Gomis. Félicité & Victor Forniés. Un padre
Pág. 28: Itsaso Jaio. Onder de Vleugel & Laetitia Carton. Le grand bal.

Irudiak
Azala eta 12. or.: The Anonymous Project, Lee Shulman. The Deep End.
6. or.: Fernando Renes. Zaldiaren jauzia. 2018. 64 azuleju beiradun, bakoitza 15x15 cm-koa.
8. or.: Meta-colectivo. Compost-ables.
10 eta 20. or.: Florencia Rojas. Arundo donax-Les mauvaises terres à traverser; Ultzamaren bat egitea Argarekin.
14 eta 22-23. or.: Itsaso Iribarren & Germán de la Riva. Hiriak, bideak, gorputzak eta pusketak.
16. or.: Marianne Mispelaëre. Silent Slogan.
18. or.: María Kourkoúta. Itzulera Eolo kalera.
24. or.: Ana Esmith. Michelangeloren Miss Beige. Ponce galeria+Robles, Madril.
26 eta 27. or.: Alain Gomis. Félicité & Victor Forniés. Aita bat
28. or.: Itsaso Jaio. Onder de Vleugel & Laetitia Carton. Le grand bal.

Diseño gráfico y maquetación / Diseinu grafikoa eta maketazioa
Marta E. Martín

Imprenta / Inprimategia
Espacegrafic

Deposito legal/ Lege-gordailua
DL NA 2008-2015/ LG NA 2008-2015

El catálogo de MAPAMUNDISTAS 2021 se ha impreso en agosto 2021 con una tirada de 600 ejemplares.
MAPAMUNDITARRAK 2021en katalogoa 2021eko abuztuan argitaratu da, 600 aleko tiradarekin.

2021

MAPAMUNDISTAS

Un **movimiento** que engendra un *movimiento*
Mugimendu batek eragiten duen **mugimendua**